



MARGARITA

Lucía Moreno Concha

EUSKARA POESIA 17-18 URTE

1. Akzesita

Joaten zaidan pertsona maitea.
Nire abuela maitea.

Gogoan egunsentiko deia,
ez zinela bueltatuko ideia,
aitari besarkada,
negar egiteko beharbada.
Malkoak eta malkoak
momentu hartako gidoia.

Denbora asko ez zintudala ikusi,
ez zidatelako utzi.
Ospitalean pandemia garaian egon zinelarik,
geratu nintzen zu ikusi barik.
Ez zeneukan inongo gaiztakeriarik,
joateko garaia bazik.

Gogoan parkean arratsaldeak,
gogoan mahai-joko partidak,
gogoan familia bazkariak,
gogoan oparitutako liburuak,
gogoan oraindik zure ahotsa,
gogoan, betirako gogoan.

Margarita maitea,
ahantzitako hura da hiltzen dena.

